

INGURU SOZIALA

Maria Elorza (Donostia, 1957)

Zergatik egin duzu bat Entzute Sarearekin?

Miriam proiektuko boluntarioa naiz, egoera zail eta konprometituak dituzten emakumeak joaten dira bertara. Premia handikoa. Ideia azaldu eta ekimenak berehala konbentzitu ninduten; beharrezko ikusi, eta parte hartzea erabaki nuen.

Zein da hitz egiten duzun pertsonen perfila?

Beren herrialdea, familia... atzean utzi duten emakumeak. Askok, pandemian zehar bizirauten zituzten aurrezki urriak gastatu dituzte. Paperik gabeko emakumeak; ikusezina. Hitz egiteak on egiten die, baita niri ere. Beraz, aurrera!

Pandemian, guztientzat, telefonoa are komunikazio-tresna handiagoa izan da. Hala da. Telefonoak eta bideokonferentziek pertsonengana hurbildu gaituzte. Eta guk Entzute Sarearekin gauza bera lortu nahi dugu.

Zenbatean behin izaten dituzu solasaldiak?

Normalean, astean behin, baina beraiek dira maiztasuna markatzen dutenak. Ez ditugu bideo-deiak erabiltzen, baina elkar ikusten ez badugu ere, ahotsaren bitartez ezagutzen dugu elkar. Elkarriketaren baten ondoren, emotikono ezberdinak jaso

"Bakardadeari aurre egiteko gakoa, inguru sozial hurbila eraikitzea da"



Zer adierazten dizute? Zer esaten dizute?

Asko baloratzen eta eskertzen dute egoera ekonomiko zail honetan norbait haietaz oroitzea. Asko nahiko estututa daude, eta Entzute Sarea, beraientzat, balio positiboa da egoera arraro eta gogor honetan. Deia esker, erlazionatzen dira, ez daude bakartuta... Bat baino gehiago bakar-bakarrik daude.

Aldarte berezi bateko emakumeak dira.

Ausarta izan behar da oso, hain urrats garrantzitsua emateko, familia, etab. bere herrialdean utzi, eta bizi-proiektu berri bati ekiteko. Oso atsegina da beraiekin hitz egitea.

Ahots-tonuak pertsonaren gogo-aldarte

adierazten al du? Bai. Xehetasun asko ematen ditu. Elkarriketetan zehar antzematen dut ea pertsona pixka bat lasaitu den... Gutxienez, hitz egiten aritu gara. Ez da gutxi! Beste aldean norbait dagoela sentitzen dute; ez daudela bakarrik. Horrek asko kontsolatzen ditu.

Ba al da asteko solasaldia, 'iturriko ura' bezala eskertzen duenik? Hori norberaren izaeraren araberakoa da, baina baietz esango nuke. Haientzat une garrantzitsua da. Adibidez, pandemia izan arren, bere lana mantendu duen emakume batekin hitz egiten dut, eta “deituidazu berriz” eskatu zidan. Pertsona bakoitza mundu bat da.

Entzute Sarean sartu aurretik, ez dakit telefonoz asko hitz egiten zenuen? Bai. Asko gustatzen zait jendearekin komunikatzea eskura ditugun aukerengatik: whatsapp, etab.

Gogo-aldarteak baldintzatzen al du zure lana? Pertsonekin, lasai nagoen une batean egoten saiatzen naiz, eroso eta hurbil egoteko. Ez gara beti berdin jaikitzen. Normalean, eguerdian egiten ditut deiak, baita asteburuetan ere. Ordutegia beraiek ezartzen dute. Bakardadeari aurre egiteko gakoa, inguru sozial hurbila eraikitzea da.

